



Guztia prest Tolosako Babarrunaren Asterako

EGITARAUA ▶ Asteazkenean hasi eta igandera arte ekitaldi ugari izango dira; larunbata egun handia

DATUAK ▶ Iaz 20.000 kilo bildu zituzten; aurten babarrun gutxiago izango da «udako lehortegatik» ▶ 4

LEITZA ▶

Galdu arren postu onean jarraitzen du Aurrerak

Hurrengo partida etzi izanen dute etxean ▶ 7



Herriko plazako berritze lanak bukatu dituzte, azken xehetasunak falta baditu ere

IKAZTEGIETA ▶ Herriko plaza berria bukatutzat emateko azken xehetasunak falta diren arren, berritze lanak amaitu dituzte dagoeneko. Jolas-parke berria ere dauka, non eskolako haurrek bertan egiten duten jolas-ordua. Xabier Rezabal arkitektoaren esanetan, udaberri aldera landareak aldatuko dituzte, eta eserleku gehiago jartzeko asmoa dute. Eliza ingurua ere txukundu dute eta egurrezko egitura duen estalpe bat eraiki dute. **ENERITZ MAIZ** ▶ 5

LEITZA ▶

Udalak Igor Astibia askatzea exijitu du azken osoko bilkuran

Bi urte daramatza presoaldi prebentiboan epaiketaren zain ▶ 7

ENRIQUE AZURZA ▶ EPAIMAHAIKIDEA

«Europako lehiaketen artean ez dago Tolosakoa bezain herrikoirik»

Gaur Polifonia eta Folklore arloan lehiatuko dira abesbatzak ▶ 2-3



N. LATABURU

BIHAR Zinema etxean 2

mantagorri (lekin)

8 DVD euskaraz

+ 4,50 €

berria

AUKERA EZAZU, BIZI EUSKARAZ **berria**

38. ABESBATZA LEHIAKETA ▶

Polifonia eta Folklore gaurkoan

Polifonia arloan, 18:00etan, bost abesbatza eta folkloean, 22:00etan, lau abesbatza ariko dira gaur Leidorren; bihar izango da lehiaketaren azken eguna, eta gauean jakingo dira irabazleen izenak

I. ASENSIO-I. TERRADILLOS

Atzokoan musika profanoaren txanda izan bazen, gaur Leidor aretoan, 18:00etan eta 22:00etan polifonia eta folklore atalean lehiatuko dira abesbatzak.

POLIFONIA EL LEON DE ORO

Jatorria. Luanco (Asturias).
Zuzendaria. Marco Antonio García de Paz.
Taldeakideak. 20 emakume eta 20 gizon.

Taldeak. Ahots nahasiak.
Historia. 1996an eratu, El leon de oro 40 ahots nahasiz osatua dago, guztiak musikari gazteak edo abesbatza munduko zaletuak. Abesbatza ziklo onenetan abestu dute, erreperitorio anitzak eta berritzaileak abestuz, horregatik entzulegoaren eta kritikaren aldetik harrea eta onarpen handia lortu dutelarik.

POLIFONIA ETA FOLKLOREA THE ATENEO CHAMBER

Jatorria. Manila (Filipinak).
Zuzendaria. Jonathan Velasco.
Taldeakideak. 17 emakume eta 16 gizon.

Taldeak. Ahots nahasiak.
Historia. Musika sakratuan espezializaturik dagoen abesbatza da. Ateneo College Glee Clubeko graduatuek eta lagunek eratu zuten 2001ean, nazioarteko lehiaketetan eta Europan eskainitako kontzertuetan ohore handienak lortu ondoren, elkarrekin lanean jarraitzeko aukera bat bilatzen zuten. Babesgarri izan zen beraiarentzat 2002ko uztailean Kammerchor Stuttgart opeskuarekin kontzertu batekin hastea. Bere lan bikainagatik abesbatzak ospea irabazten jarraitzen du, eta 2004ean *Bi abesbatzentzako meza* inter-

pretatzen du 29. International Bamboo Organ Festivalean.

VOCES CANTABLES

Jatorria. Erresuma Batua.
Zuzendaria. Barnaby Smith.
Taldeakideak. 10 emakume eta 12 gizon.

Taldeak. Ahots nahasiak.
Historia. 2003an eratu, Erresuma Batuko abesbatza erakunde ospetsuenetik datozen abeslari gazte osaturik dago. batzuk Erresuma Batuko leku garrantzitsu ugarritan abestu dute, horien artean, Barbican Hall, Winchester Cathedral, Cork Minister eta Bristol Cathedral. Lorpenen artean, Goriako Seghiziko Abesbatza Lehiaketan 8 sari irabazi zituen. Voces Cantabilesean ondorengo ekintzen artean Txetoria eta Norvegia emango dituen kontzertuak eta Robert Parsonsen musikarekin egingo duten diskoaren grabazioa daude

LA BOTTEGA MUSICALE

Jatorria. Turin (Italia).
Zuzendaria. Gianni Cucci.
Taldeakideak. 24 emakume.
Taldeak. Ahots berdinak.

Historia. 1977an eratu zen musika, batez ere abesbatza lantzen duten haur eta gazteen topagune gisa. Ekintza haurrentzako prestakuntza ikastaro batekin, haur abesbatza eta emakume abesbatza batekin hasten da. Bere sorreratik gregoriano kantua ikasketa eta interpretazioari arreta berezia eskaini dio eta espezialitate honetako italiar abesbatza adierazgarrietako bat bezala onarturik dago.

CORALIA

Jatorria. Puerto Rico.
Zuzendaria. Carmen Ecevedo.
Taldeakideak. 16 emakume eta 16 gizon.

Taldeak. Ahots nahasiak.
Historia. 1936koa den esparru riopedrenseko urte askoko abesbatza tradizioari atal bat osatzen du Coraliak. 1982an eratu zuen Carmen Acevedok, bere gaurko zuzendariak, Coro de Concierto izenarekin eta musika lanetan esperientzia eta prestakuntza sendoa duten ikasle eta ikasle ohiez osaturik dago. Bere erreperitorioak garai historiko guztiak hartzen ditu, baina, batez ere, latinoamerikar, folklore eta Puerto Ricoko lanen interpretazioa mugatzen da.



Italiako La Bottega Musicale abesbatzako kideak. 24 emakumez osaturik dago. HITZA



Ateneo Chamber Singers Filipinetako taldea polifonia eta folklore sailean ariko da. HITZA



Puerto Ricoko Coralia abesbatzako kideak polifonia eta folklore arloan ariko dira gaur. HITZA

iragarki laburrak ▶

LANA

Ileapaintzailea. Honekin ciber ileapaindegiak laguntzaile eta ofizialak behar ditu.
943 67 22 44 edo 635 736 375.

SALGAI

Autoa. BMW M3a. Urdina, 286 zaldi. 1995 urtekoa. 153.000 kilometro. 18ko lllantak eta sabaia. Egoera oso onean.
14.000 euro. 943 65 41 43.



Suitzako Ensemble Vocal Peñalosa, atzo Leidor aretoan. IÑIGO ASENSIO

IRITZIA ▶ MIGEL ZEBERIO (KORU ETA ORKESTRA ZUZENDARIA)

Zorion beroak guztiei!



Ukrainiako Nikolaev Emakumeen Koru Ekademikoa; Oñatiko Ganbara Abesbatza; Alemaniako Kammerchor der Musikhochschule Mannheim; Bulgariako Te Deum Adoramus; Frantziako Mikrokosmos eta Euska Herriko Vokalía Taldea.

Asteazken arratsaldeko bi saioekin argitxo gelditu zen aurtengo lehiaketak ez duela kontuetarako denborarik; bistakoa da jada entzundakoa entzunik, koru trebeenak aukeratzeko munduko zoko guztiak miatu dituela antolamenduak. Goizeko saioan gertatu bezela, aretoa zaleztu lepo egon zen. Aspaldian ez bezelako jaialdi giro kutsakorra nabari zen Tolosan. Ez da lorpen makala! Ausardiarekin saiatuko naiz ondorengo tartetxoan sei talde hain anitzei buruz zertzeladaren bat edo beste ematen.

Europar ekialdeko tradizioaren gordailu, ahoskera ilunxamar baina aldi berean leunez jantzi zuten jarduna. Inoiz bortxatu gabe, aldaera dinamikoa aberatsak lortzeko gaitasunez lortzen zuten enpate guriak, sentimenduz beteriko diskurtsoa egitera ahalbiberatu zituen. Behar bada, polifoniaren alorrean apalxeago aritu ziren. *V Stepurkoren The Wonderful Marvel* obran, itsasoa eta kaioren artean girotutako obra berritzailea oso harrigarria izan zitzaigun.

Atsegin handiz eta txalo zaparradaz beroturik Oñatikoak Estebantxoren esanetara, sarrera sasotsu egin zuten. *Bustoren Ametsetan*-en, erromeriko festagiroan murgilarazi gintuzten

bat batean, *Abemari* eta fandango, antzerki dotorean. Gorabeherak gorabehera, gaztetasunaren freskura eta indarra txertatzea lortu zuten bi saioetan zehar eta ez da txantxa. Urte mordoak taldea moldatzen eta borobiltzen eta amets bat gehiago esku artean: Tolosan handienekin lehiatzea.

Alemaniarrek ere talde polita erakutsi zuten. Lehen agerraldian, pasa ahala berotzen joan ziren, *H Wagenmann* en *3 Volkslieder* abestitxoean eta I Mokoroaren *Neure Maitena*-n taldeak heldutasuna erakutsi zutelarik. Barrokoari ere keinu egin zioten melisma luze jostalari eta zorrotzak eskainiaz bai eta. Brahms en *Abenlied* ean fintasunari. Bulgariarrak apal xamar, hala ere ekialdeko kutsuzko doinu malenkoniatsu eta geldien eskutik kontrasterako fiabardura eskaini zioten saioei.

Frantziako Mikrokosmos soinu tresna ahalduaren jabe izateaz bereiztu zen: orekatua, segurua eta makatzailea obren barrunbeak arakatu eta adierazteko, bereziki polifoniar. Folklorean, D Azurzaren *Loriak Udán* obra behartuan, bortxaz tarteka ebakitako balts erritmoari atera zioten zuku. P Loic zuzendariaren obra gehiegi interpretatzea aberastasunaren kalterako gertatu zitzairen. Vocaliak eta bere gidari Astulez Jaunak, ez zuen lehiarako ausardiarik gorde; Enkarguz eginiako obra xorta erakusgarria mustrarako: E Ugalde, A Alcaraz eta D Azurza. Zerbait azpimarratzekotan Debussyren *Les Angéles* en zailtasunak, Alcarazen *Priere*-ren kontzeptu hunkigarriak edo Azurtzaren *Tirikitaiki* muntaiaren lan eskeraga. Tamalez bigarren agerraldian nekea edo sumatu zitzairen zenbait taldekideei, baina tira.

Zorion beroak guztiei!

ENRIKE AZURZA ▶ EPAIMAHAIKIDEA

«Europako lehiaketetan ez da Tolosakoa bezain herrikoirik ikusten»

I. Asensio ▶ Abesbatza Zuzendaritza Euskal Herrian ikasi zuen Enrike Azurza tolosarrak. Horrez gain, Estocolmon (Suedia) ikasi zuen egun hauetan bere epahimahaikide den Anders Ebyrekin. Lehiaketaren giroari buruz eta lehen egunetan ikusi ahal izan dituzten emandaliei buruz mintzatu da Azurza tolosarra **TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAIKIN**.

Zein da lehen lehiaketa egun hauetaz egin dezakezun balorazioa?

Oraindik taldeak gelditzen dira ikusteke, baina ikusi dugunaren maila apartekoa izan da. Entzun ditugun abesbatzak ikaragarriko maila erakutsi dute, hurrengoak ikusi behar, baina ziur beraiek ere maila bikaina erakusten dutela.

Dagoeneko faboritoren bat ba al duzue?

Hori ezin erantzun dezaket. Orain arte azpimarra daitekeen euskal abesbatzen maila izan da. Bai Gasteiz eta bai Oñatiko abesbatzek oso emandaldi onak eskaini dituzte. Haurren artean ere maila apartekoa izan da.

Zein dira epahimahaik emandaldi bat epaitzerakoan kontuan hartzen dituen ezaugarri nagusiak?

Aspektu asko dira kontuan hartu beharrekoak. Alde batetik bokalitetea edo ahots kalitate aldea batetik, horrez gain zuzendariak eta abesbatzak berak egiten duten interpretazioa ere garrantzitsua da, eta azkenik programa aukeraketa. Abesbatzak aukeratzeko kontuan obretan ere garrantzia handia dago. Laburtuz, bokalitetea, interpretazioa eta programaren arteko balorazio bat dela esan daiteke.



N. LATABURU

Zer moduzkoa iruditzi zaizu Leidor Aretoaren akustika?

Nire ustez oraindik lehor xamarra da. Nahiago nuke erresonantzia gehixeago balu, soiunak itzultze gehiago izatea. Baliteke kantari ari denarentzat lehen baina erosoagoa izatea, eskenatokiaren bertan, baina entzulegoarentzat oraindik ere lehorra iruditzen zait. Akustika eskertuago bat hobe litzateke. Dena den, oraindik lana egin daitekeela iruditzen zait, ez dela hau azken emaitza.

Nolakoa izaten ari da jendearen harrera?

Epahimahaia ikaratuta dago. Jendearen erantzuna bikaina ari da izaten. Jendez gainekada daude emandaldi gehienak. Oso lehiaketa herrikoia da, jendearen parte-hartze handia duena. Nik Europako lehiaketa guztiak ezagutzen ditut eta ez da horrelakorik ikusten. Haurren saioan ere ikuslego oso gaztea zegoen eta isiltasun osoz aritu ziren kontzertu guztian zehar. Giro berezia du lehiaketa honek. ◀



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info



EKONOMIA ▶

ESTI EZEIZA

Beste behin ere, iritsi da Tolosako Babarrunaren Astea, «urtean zehar egindako lana ikusteko balio duen astea». Hala, datorren astean, babarrunarekin lotutako lehiaketak, eta beste hainbat ekitaldi gauzatu-ko dituzte.

Atzo aurkeztu zuten egitasmoa, Jexux Mari Argiñarena Landa Inguruaren Garapenerako zuzendariak; Jokin Bildarratz Tolosako Alkateak; Joxemi Gomez Tolosako Udaleko Garapen Ekonomiko, Turismo eta Enplegu lehendakariak; Imanol Jaka 2005eko babarrun irabazlearen lakari enkanteko erosleak eta Roberto Ruiz Fronton jatetxeko sukaldariak.

Argiñarenak azaldu zuenez, «azken urte hauetan goranzko joera duen produktua da Tolosako babarruna, eta kontsumitzaileentzat balio handikoa». Bestalde, «kontua ez da produktua biltzea bakarrik, gizarteratu ere egin behar da, eta Tolosako Udalak lan handia egin du sustapen horretan».

Mari Karmen Iradi, Tolosako babarrunaren kofradiako lehendakariaren esanetan, Elkartean zenbatutako datuen arabera, joan den urtean 20.000 kilo bildu zituzten nekazariak. Halaber, «udako lehortearen ondorioz, eta oraindik ale guztiak ez badira bildu ere, ziurrenik aurten babarrun gutxiago izango da». Dena den, Iradiren ustetan, «honek ez du esan nahi aurtengo uzta urria denik, baizik eta, iazkoa normalean baino handiagoa izan zela». Honen inguruan Jokin Bildarratz alkateak aipatu zuen, «eskaria baino eskaintza txikiagoa dela». Eta gaineratu zuen, eguneroko jaki bezala ezagutzetik, zaindutako produktu bat izatera igaro dela Tolosako babarruna.

Bestelako ikuskizunak

Babarrunarekin lotuta urtero egiten diren ekitaldiez gain —azoka berezia, Babarrunaren Ekoizleen Lehiaketa, babarrun irabazlearen lakari baten enkantea, babarrun eta ardo dastaketa eta Tolosako Babarrunaren Lehiaketa Gastronomikoa— beste hainbat ikuskizun ere izango dira Babarrun Astearen baitan. Haurrei zuzenduta, ikastaroak eta bertso emanaldia izango dira datorren astean. Honekin batera, Babarrunaren Aste honetan antzerkia, dantza eta musika ere ez dira faltako. Eta asteak azken egunean, herri kirolei tartetxoak eginez, II Munduko Aizkolari Azkarrenaren Txapelketa jokatu da Beotibar pilotalekuan.

«Tolosako urre beltzaren» astea dagoeneko iritsi da

Datorren asteazkenean hasita, eta igandera arte, Tolosako Babarrunaren Astea ospatuko dute eskualdean



Atzo, aurkezpenean: Imanol Jaka, Roberto Ruiz, Jokin Bildarratz, Jexux Argiñarena eta Josemi Gomez. e.e.

TOLOSAKO BABARRUNAREN ASTEA ▶

HILAK 8, ASTEAZKENA

19:00. *Pul, pul, pul Tolosako babarruna* liburuaren aurkezpena Zerkausion.

HILAK 9, OSTEGUNA

10:30. Gustuaren egunari buruzko hitzaldia ikasleentzat Felix garridoren eskutik, Laskorain ikastolan.

19:00. III. Tolosako Babarrunaren Pintxo Lehiaketa. Hemen parte hartzen duten taberna, jatetxe, elkarte eta abarrek barran aurkeztuko dute pintxoak.

HILAK 10, OSTIRALA

22:30. *Nastrovia Chejov* antzerki emanaldia Leidor aretoan.

HILAK 11, LARUNBATA

08:00. XIX. Tolosako Babarrunaren Ekoizleen Lehiaketa ospatuko da Triangulo plazan.

09:00. Azoka berezia izango da Triangulo plazan (babarrunak, piparrak, odolkiak, txerriak, ardoa...).

10:30. Giro arte dultzaina taldea.

11:00. III. Tolosako

Babarrunaren Pintxo Lehiaketako sari banaketa Triangulo plazan.

11:30. Txapela nork ondoen jantzi VIII. lehiaketa, Txinparta elkartearen.

12:00. Tolosako Babarrunaren Kofradiaren eskutik, babarrunak jateko eta Viña Laguardia eteko ardoa edateko aukera Triangulo plazan.

12:30. Tolosako Hirukide, Laskorain eta Samaniego ikastetxeetako ikasleen bertso emanaldia Triangulo plazan.

13:00. Tolosako Babarrunaren Ekoizleen Lehiaketako sari banaketa Triangulo plazan.

13:15. Babarrun irabazlearen lakari bat enkantean, Triangulo plazan.

14:00. Babarrun jatea Tolosako Alde Zaharreko tabernetan, Ezpeleta ostalaritza elkarteak antolatuta 600 lagunentzat.

17:00. *Hiru txerrikoak* haur ikuskizuna, Leidor aretoan.

18:00. Alde Zaharra Dendak antolatuta, *Fadunito: La gran familia* kale ikuskizuna izango da Alde Zaharrean.

18:30. Incansables txaranga.

20:00. *Todos nacemos vascos* antzerkiaren 100. emanaldia, Leidor aretoan.

22:30. Tolosako Udaberreri eta Uztaritzeko Izarbo taldeen eskutik dantza ikuskizuna Beotibar pilotalekuan.

24:00. Incansables txarangaren bigarren saioa.

HILAK 12, IGANDEA

08:00. XX. Tolosako Babarrunaren Lehiaketa Gastronomikoa Ferialekuan.

10:30. IX. Artzain Txakur Lehiaketa egingo da lurrarendiko zelaietan.

12:00. II. Munduko Aizkolari Azkarrenaren Txapelketa egingo da Beotibar frontoian.

13:00. Tolosako Babarrunaren Lehiaketa Gastronomikoko sari banaketa Ferialekuan.

14:30. Herri bazkaria Ferialekuan.

17:00. Lasturgo zezen enbolatuekin erakustaldia eta festa Zezen plazan.

19:00. Jean Bordaxar Laukotearen kantaldia Berdura plazan.

19:00. *Nomadak TX* dokumentalaren zine emanaldia Leidor aretoan.

VILLABONA ▶

Mihiluzeko sari handiena Villabonon geratu da

ERREDAKZIOA

Villabonako Jon Garmendiak eta Urtzi Ugaldek 7.208 euroko saria irabazi zuten atzo ETB1-eko Mihiluze saioan.

Telebista saioko denboraldi berri honetako 18. atala izan zen atzokoa, eta billabonatar hauek, *Zer da zer* izeneko azken proban dena asmatu eta orain arteko diru kopururik handiena eraman zuten.

Denboraldi honetan 20.000 euro banatu dituzte orain arte Mihiluze-n. Eskualdeko gazte bikoteaz gain, beste bi bikotek eraman dute zakua: Asier Gofnik eta Eluska Irizuk 4.085 euroko saria eraman zuten, eta Oihana Astobietak eta Alaitz Zabalak 4.342 euro. Badira horrez gain, zakua lortu ez baina dirutza eraman dutenak ere.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
▶ **Ibarroalde.** Osasun etxea: 672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595
▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**
▶ Anbulatorioa, larrialdi: 461111
▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900
▶ Amaroako dispen.: 672637
▶ Asunzion Klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)

▶ **DYA:** 672536
▶ **Gurutze Gorria:** 674888
▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930
Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02
▶ Donostiako autobusa: 361740
▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzaran autob.: 948 221015
▶ Taxia: 670420
▶ Taxia (Leitza): 608 873016

▶ **Besterik.**
▶ Ertzaintza: 538820
▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016
▶ Lurrarendi egoitza: 670325
▶ Tolosa gasa: 675320

IKAZTEGIETA ▶ HIRIGINTZA

Herriko plaza berriak bukatutzat emateko azkenekoak falta ditu

Landareak udaberria aldera aldatuko dituzte, eta eserleku gehiago jartzeko asmoa dute, baina obrak bukatu dituzte



Ikaztegietak eliza bukatuta badago ere, oraindik inguruko detaileekin bukatzea falta da. ENERITZ MAIZ

NEREA URBIZU

Ikaztegietak plaza berria du dagoeneko. Berez, abuztuko herriko festetan inauguratu zuten, ordurako erabil zitekeelako, baina oraindik Ikaztegietak plaza guztiz bukatuta egoteko azken detaileak falta dira: Xabier Rezabal arkitektoak

esan zuenez, «arrekontuak esleitzen dituztenerako, nik uste, urte hasierarako amaituko dugula».

Lehenengo urtearen bukaeran hasi zituzten Ikaztegietak plaza eta eliza inguruko obrak. Horretan, asmoa edo proiektua elizaren kanpoaldea txukuntzea eta lehenagoko pilotaleku

zaharra zegoen tokian herriko plaza egitea izan ziren.

Elizaren itxura dagoeneko aldatu dute: kanpoaldean estalpe bat eraiki dute, elizaren inguru guztian zehar. Egurrezko egitura dauka, lurretik 3 eta 7 metro bitarteko altuerara. Plaza eta elizaren itxura berria inauguratu zituzten, abuztuan,

JOLAS-PARKEA

Plaza berriak jolas-parkea dauka, eta eskolako haurrek bertan egiten dute jolas-ordua

herriko festetan, baina plaza ez dute oraindik amaitu, «argiak, landare eta loreak, altzariak eta jardinerak falta dira», Xabier Rezabal arkitektoak gogoratu zuenez. Beraz, detailetxoak jartzeko joango dira hilabete hauetan.

«Hala ere, plaza erabiltzen dute bizilagunek, erabilgai dagoelako, noski. Gainera, eskolako haurrek plaza honetan egiten dute jolas-ordua, parke bat ere baitu eta egokia da haurrentzat». Horrez gain, plaza berriak komuna publikoak dauka, denon eskuragarri. Hauek plazara jaisteko eskailekin aldamenean daude.

Obraren gainera mugimendu guztiak duela 4 bat urte hasi zituzten: pilotaleku zaharra bota zuten, besteak beste: «elizaren balio arkitektonikoa itzaltzen baitzuen eta horrez gain, ez zen batere estetikoia. Bi paretetako zen eta hori bota egin genuen».

Beste plaza bat araututa

«Hurrengo fasea», gogoratu zuen herriko arkitektoak, elizako atzealdea, eskolara jotzen duena, alegia, txukuntzea izango da. «Urbanizatu egingo dugu, baina oraindik ez da ezer egingo, aurrekontuak egin arte». Printzipioz, «plaza berri bat egingo dute bertan; araututa dagoen plana da, baina beste fase batean dagoena da».

AHT ▶

Gaur hainbat mobilizazio egingo dituzte

AHT Gelditu! Elkarlanak delaldi bat zabaldu du gaurko. AHTko obrak hasi direla salatu eta erantzuteko mobilizazioak egingo ditu. «Kalte ekologiko eta sozial larriak eragingo dituen proiektuari «berehalak gelditzea exijitze» mobilizazioa 19:30ean Tolosan egingo dute, Triangulon. Anoetan, ordu berean plazan. 20:00etan, aldiz, Zizurkilan —Joxe Arregi plazan—, Asteasuko eta Adunako plazetan eta Villabonan Hirualdetan.

AMEZKETA ▶

Zazpi-Iturri pilota taldearen emaitzak

Zazpi-Iturri pilota eskolako emaitzak hauek izan dira: banaka kadeteak, Txapagain 9, Sukia 18. Binaka kadeteak Olaetxea-Arzelus 15, Erniope 22. Benañ Jauregi gazteak 13, Erniopek 22. Nagusietan, Bergarak 13, Ibai Belokik 22. Aurrera-saiazek 9, Unai Legarretak 22, nagusien mailan. Bihar Amezetako pilotalekuan 17:00etan Zazpi-Iturriko senior mailako bi bikote ariko dira aurrez aurre.

ALEGIA ▶

Azaro Kulturalaren baitan, argazkiak

Azaro Kulturalaren baitan, hainbat ekitaldi prestatu dituzte Alegian. Hasteko *Alegia, lehen eta orain* argazki erakusketa dago ikusgai Inaxio Begiristain kultur eta kirol etxean, 10:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 21:00etara. Bihar, aldiz, 17:00etan dantzariak, Dantzari Txiki Egunaren baitan.

IKAZTEGIETA ▶ FUTBOLA

Intxurrek 4 derbi jokatu dituzte hiru egun hauetan

Aurreko asteburuan hiru garaipen Axularren kontra eta jubenilek berdinketa lortu zuten

N. URBIZU

Intxurre futbol eta areto futbol taldeko jokalariek gaur, bihar eta etzi izango dituzte norgehiagokak. Amaro eta Eskolapioak izango dituzte arerio.

Lehenik, gaur Alegian jokatuko den partida izango da, 21:00etan: honetan nesken areto futbol taldea Amaro taldearen aurka ariko da. Biharkoan, lurraldekako futbol partida Usabalen jokatuko dute, Amaro taldearen aurka, 15:30ean.

Jubenilek bihar 11:00etan

jokatuko dute Amaro taldearen aurka, 12:30ean, bihar.

Aurreko asteburuan Intxurre sendo aritu zen. Hauek izan ziren lortutako emaitzak: neskek

5-1, Axularren kontra garaipen argia. Lurraldekakoek 1-0, Axularren kontra ere. Jubenilek berdinketa (1-1) Seguraren aurka, eta kadeteek garaipen handia lortu zuten; Intxurreko gazteenek 11 gol sartu zituzten Aitzgorri taldekoen kontra.

OSTATUA

- Eguneko Menua (aste guztian, larunbat eta igandea ezik)
- Karta aste guztian zehar

Urrope plaza • Leaburu
Tel.: 943 67 15 48

ELOLA ALTZARIAK

Banatzaille Ofiziala **bede**

- Etxeko altzariak.
- Ordenagailuz egindako proiektuak.
- Armairu enpotratuak neurritara.

Lizardi poeta, 2 - Tel.: 943 65 29 01 - TOLOSA

IKER GOENAGA ▶ TRIKITILARIA

BERRIA

Betidanik izan du Iker Goenaga zizurkildarrak trikitirako zaletasuna. Itzaleko langiletzat du bere burua, baina pozik dago *Amorrua* diskoa argitaratzeko aukera izan duelako. Harremana du Trikitilari elkartearekin, eta ikerketarako eta materiala biltzeko bilgune aproposa dela uste du. Tresna baliagarritzat dauka elkarte, baina baliagarriago ere egin daitekeela dio.

Nola sortu zitzaizun trikitirako zaletasuna?

Umetatik dator kit zaletasuna. Etxean trikitilariak beti izan ditugu eta Tolosaldean beti izan dugu soinu txikia gertu entzun eta ikusteko aukera.

Urte dezente daramatzazu trikitilari lanetan, eta herriaren animoak jasotzen al dituzu?

Herriaren kontzeptua oso zabala da, baina esan nezake jendearen hurbiltasuna eta beroa sentitzen ditudala. Hala ere, gure lana ezin du horrek baldintzatu. Animoek beti behar lukete izan lanaren emaitza, eta ez alderantziz.

Plazarik plaza ibiltzeko pandero jotzaile bat aukeratu beharko bazenu, zein aukeratuko zenuke?

Lantegi zaila jarri didazu. Pandero jotzaileak nirekin hase-rrerterik ez nuke nahi. Gainera, plazarik plaza bagabiltza, eta pandero jolerik gabe. Momentuz ongi moldatzen gara.

Nolakoak dira trikitilarien egungo ikus-entzuleak, zaharrak ala gazteak?

Trikitilari bakoitzak bere ikus-entzuleak dituela uste dut, egiten duen musikaren arabera. Nire kasuan denetarik aurki daiteke. Zuzeneko emanaldietan, haurrak, gazteak, helduak... denetarik topatu dugu. **Gazte asko animatzen al da trikitia ikastera? Ala denborarekin gero eta gutxiagok aukeratzen dute bide hori?**

Trikitia ikastera haur eta gazte asko animatzen da. Hala ere, azkeneko urteetan ikasleen motibazioa ahulagoa dela

«Nik ez dut formula magikorik bilatu nahi»

Isilean lan handia egin du zizurkildarrak trikitiak gizartean dagokion lekua izan dezan



esango nuke. Horretan gaur egun dugun bizimoduak eragirik badu, eta globalizazioak eta...

Azken urteotan, musika elektronikoa arrakasta lortzen ari da, bai nazioartean eta bai Euskal Herrian ere. Zeuek ere formula berriak topatu behar al dituzue joera horiekin bat etortzeko?

Nik ez dut formula magikorik bilatu nahi. Beraz, ez dut aurkituko. Bestalde, sentitzen dudana azaltzeko, azken lanean keinu batzuk egin dizkiogu elektronikari. Estudio lan bat osatzeko baliagarria izan daiteke.

Ze harreman mota daukazu trikitilariak trikiti elkartearekin?

Nik neuk oso harreman estua daukat elkartearekin. Kezka agertzeko, ikuspegiak trukatzeko, tradizioa arakatzeko eta biltzeko... gure elkarte oso lan tresna baliagarria da, eta gehiago ere izan daiteke.

Euskal Herrian trikitilari asko dago, baina batzuen lana baino ez dugu ezagutzen. Beste batzuk itzalean lan egin behar dute.

Bitxia da, baina nik neure burua itzaleko langiletzat daukat. Egia da itzaleko lan hori argitaratzeko aukera izan dudala. Baina ez da erraza izan beti. Gaur egun trikitiarekin hasten denak zailago daukala iruditzen zait, zoritxarrez merkatuaren legeak agintzen duelako.

Trikitilari daukan edo behar duen adinako garrantzia ematen zaiola uste al duzu?

Orokorrean musikak lehenago zuen garrantzia galdu duela uste dut. Horren ondorioz trikitilari ere tokatu zaio garrantzia galtzea. Lehen aipatu bezala, gaur egungo gizartearen bizimoduak eragin zuzena dauka horretan.

Zein da bereziki gogoratzen duzun trikiti kopia hori?

Mendirik mendi lainua, pagorik pago usua, ez da errez harrapatzen, gustokoaren pausua.

ZALEAK

«Trikitilari bakoitzak bere ikus-entzuleak ditu egiten duen musikaren arabera; nire kasuan, denetarik aurki daiteke»

TRIKITIA

«Gaur egun trikitiarekin hasten denak zailago daukala iruditzen zait, merkatuaren legeak agintzen duelako»

DI-DA BATEAN ▶

Definitu zuere burua?

Konstantea.

Trikitilari bat? Elgea.

Gusturen aritu zaren plaza? Viljandin, Estonian.

Zerk alaitzen dizu eguna?

Bixkorrek, Neguk eta Xai-mak.

Eta zerk tristetu? Parisko espetetik orain gutxi Mar-seillara alden duen lagunak.

Kanta bat? Mikel Laboaren *Orduan*.

Bizitzeko leku bat? Alkiza.

LEITZA ▶ FUTBOLA

Herenegungoa galdu arren, Aurrerak postu onean jarraitzen du

Larunbatean Altsasun irabazitako partida «polemiko» izandu zen, aurkariek 4 txartel gorri jaso baitzituzten

NAIARA GARZIA

Azken zazpi egunetan bi partida jokatu ditu Aurrera futbol taldeak. Larunbatean Altsasun, 1-2 irabaziz. Asteazkenean, berriz, ez zuen halako zor-terik izan eta 3-2 galdu zuen Ignazio taldearen aurka, Iruñeko unibertsitateko zelaietan.

Larunbatean Altsasun nahiko ongi jokatu zuten leitzarrek, sortu zituzten aukera guztiak aprobetxatuz. Altsasuarrak, berriz, ez ziren hain fin ibili, beren onetik atera ziren, ezinean ikusten baitzuten beraien burua. Aurrerako arduradunek dioten bezala, «azkenean jokalaririk batzuk bota eta guzti egin zituzten, eta zazpi jokalarirekin bukatu zuten partida». Leitzarrei sarrera itsusiak egiteagatik pare bat txartel gorri jarri zizkieten, eta beste pare bat, epailea iraintzeagatik. Polemiko xamarra izan zen, beraz, larunbateko partida. Inigo de Carlos eta Jon Arangoa izan ziren golak sartu zituztenak.

Asteazkenean Iruñean San



Aurrera denboraldi honen hasieran. J. ASTIBIA

Inazioren aurka jokatu zuten partidari dagokionez, gaizki aritu zirela esan dute arduradunek; «aukera asko sortu genituen, baina ez genuen hauek aprobetxatzen jakin». Leitzarrek gainera hutssegite pare bat izan zituzten, eta hauek baliatuz aurkariek golak sartu zituzten. Partida ez zen nahi bezain garbia izan, arduradunen ustetaz arbitroak asko lagundu bai-

tzen aurkariei. «Antton Gomezek sartutako gol bat eman eta gero atzera egin zuen». Leitzarrek haserre xamar amaitu zuten. «Saikapenari begira egoera onean gaude eta atzokoa ez da larritzeko modukoa. Aurkariak gure aurka gogotsu ateratzen dira beti, bai baitakite goi xamarrean ibiltzen garela». Hurrengo partida etxean jokatuko dute, etzi.

LEITZA ▶ EZBEHARRA

Sua erabat itzaltzeko papera edukiontzi berezietara eraman dute

Zuzendaritza atzo bildu zen lehenengoz egoera aztertzeko

N. GARZIA

Astearte goizaldean hasitako sua, hasi eta ordu gutxi batzuetara kontrolatu zuten arren, oraindik suhiltzaileak itzaltze lanetan dihardute.

Vanpac enpresak kartoi eta paper ondarrekin lan egiteak ez dizkie suhiltzaileei gauzak erraztu, eta papera oso pilatuta dagoenez, hau erabat itzaltzeko beste bide batzuk erabili dituzte. Horretarako, herriko suhiltzaileek esan duen bezala, paperak edukiontzi berezi batzuetara eraman dituzte,

hauek erabat itzaltzeko asmoarekin.

Enpresaren egoera berria dela eta, herenegun goiz xamar zenez, zuzendaritza atzo bildu zen lehenengo aldiz egoera aztertzeko asmoarekin. Sua piztu zenetik hiru egun igaro diren arren, oraindik ez dakite zerk eragin zuen eta Guardia Zibila ari da orain ikerketa lanetan.

Zauritutako suhiltzaileari dagokionez, erietxean jarraitzen du, eta bere egoera, ebakuntza egin ondoren, «larria baino egonkorra» da.



Erretako paper fardea. N. URBIZU

LEITZA ▶ POLITIKA

Udalak Astibia «berehala askatzea» exijitu du

Dagoeneko bi urte daramatza presoaldi prebentibo egoeran, epaiketaren zain



Igor Astibiaren atxiloketa salatzeako prentsaurrekoa. J. ASTIBIA

NAIARA GARZIA

Aurreko ostiralean, urriaren 27an egindako osoko bilkuran Igor Astibia atxilotu, inkomunikatu eta espetxeratu zutenetik dagoeneko ia bi urte bete direnez eta oraindik presoaldi prebentiboan dagoenez, Larrain Herri Plataformak Igor Astibia askatzeko proposamena luzatu zuen. Mozioa aho batez aprobaturik, eta UPNko ordezkariak ez ziren batzarrera joan.

Mozio honen arabera, Leitzako Udalak presoaldi prebentibo bezala ezagutzen den zigorra bertan behera uztea exijitzen du. Honetaz gain, Igor Astibiaren egoera salatzen du, «inolakako epaiketarik gabe eta sakabanaketa politikaren pean jada bi urte bete baititu». Ostiralean onartu zuten mozioaren arabera, Leitzako Udalak Igor Astibia berehala askatu eta epaiketak bertan behera gera daitezela exijitzen du. Osoko Bilkuran, ere, Udalak senideengan bisita bidaiek eragiten duten «odoluste ekonomikoa» diruz laguntzeko erabakia aprobaturik, «sakabanaketa politikako, presoen aurka bideratutako zigor politikako bako nagoa» dela ulertzen baitu, «senideei zuzenean eragiten baitie, ez ekonomikoki bakarrik, baita sozialki ere».

Mozioaren azken puntua


hartutako erabakiaren hedapenari dagokio, hau da, hartutako erabaki hauek publiko egitea.

Iada 2 urte

Igor Astibia 2004eko azaroaren 16an atxilotu zuen Espainiako polizia, ETAko azpiegiturako kide izatea leporatuz, eta ordutik epaiketaren zain dago.

ZUZENKETA ▶

Atzoko alean Luis Mari Intza erlezainaren erreportaian, bi akats izan ziren: erlearen eboluzioari dagokionez, gizakia baino 40 milioi urte lehenago sortua da eta ez 40 urte. Kubako neskak, aldiz, 5 urte zituen, eta ez, idatzi bezala, 15.



Salgai (Tolosa) La Estrella. 93m2. Aparta. Garaiea aukeran.
Salgai (Tolosa) Korreo kalean 75m2. Eraberritua. Bizitzera sartzeko prest.
Salgai (Tolosa) K/Nagusian 50m2-ko atikoa. Eraberritua.
Salgai (Tolosa) Letxuga kalean 50m2. Eraberritua estreintzeko.
Salgai (Ataun) San Gregorio. 60m2. Eraberritua estreintzeko.
Salgai (Ibarra) 90m2. Eraberritua estreintzeko.
Salgai. Hainbat baseri.
Salgai (Tolosa) Gernikako arbolan lokal komertziala 25m2.
Salgai (Tolosa) Korreo kalean lokal komertziala. 103m2.
Salgai (Tolosa) Sanmaniego kalean lokal komertziala. 30m2.
Salgai (Tolosa) Kale nagusian lokal komertziala. 50m2.
 943 69 71 96 • 675 705 268
 Korreo Kalea 50

**KONTSU
TABERNA**
 Asteburuko menua
 Plater konbinatuak
 Astearteak itxita
 Orea • 943 68 21 54



AGENDA ▶

38. ABESBATZA LEHIAKETA

Tolosa. 18:00etan, Leidor aretoan, Abesbatza Lehiaketan Folklore eta Polifonia sailetan parte hartuko duten abesbatzen saioa; 22:00etan, Leidor antzokian, Abesbatza Lehiaketan Folklore eta Polifonia sailetan parte hartuko duten abesbatzen emanaldia. Bihar, 11:00etan, Santa Klara elizan, Musika Erlijioso sailean parte hartuko duten Ahots Taldeen kantaldia; 16:00etan, Leidor antzokian, Abesbatza Lehiaketan Folklore eta Polifonia sailetan parte hartuko duten abesbatzen ekitaldia; 19:30ean, Leidorren, Abesbatza Lehiaketan Folklore eta Polifonia sailetan parte hartuko duten abesbatzen saioa; 22:00etan Tolosaldeko udaletxean lehiaketara etorri diren abesbatza zuzendariari eta pertsonari harrera ofiziala; 23:00etatik 02:00etara, Beotibar pilotalekuan, abesbatza dantzialdia; jaialdiaren baitan epaimahaiaren erabakia jakitera emango dute.

DEIALDIAK

Orea. Kultur Astearen baitan, udaletxeko ganbaran, 22:30etik aurrera Diaporama: *Zelanda berria. Naturaren hitzak.* Marronen eskutik. Bihar, berri, 21:00etatik aurrera herri afaria egingo dute *Orexak 100 biztanle* gala. Ondoren, DJ Bullen disko festa.
Tolosa. Gerontologikoaren Aldeko plataformak deituta, proposamen berriaren aurkezpena egingo dute, bihar, 11:30etik aurrera, Euskal Herria plazako Gerontologikoan.
Tolosa. XX. Babarrun Lehiaketa dela eta, lehiaketaren ostetan izango den bazkarirako sarrerak salgai daude dagoeneko. Interesatuak, Gure Kaiola elkartera, lan egunetan, 19:30etatik 21:00era joan behar dute.
Tolosa. Bihar, 22:30etik aurrera Kudai eta Naiz Roxa taldeak ariko dira Bonberenean. Kudai taldeak Donostiatik dator bere disko



Kautak bere disko berria aurkeztuko du gaur Bonberenean

MUSIKA ▶ Kauta talde andoaindarrak kontzertua eskainiko du gaurkoan Tolosaldeko Bonbereneako taula gainean. 11 kantuz osatutako *Biluzik* bere azken diskoa aurkeztuko du talde gazte honek. 22:30etik aurrera. Gorka Mendizabal taldeko batera-jolearekin hitz egin du Hitzak eta «pozik eta ilusioz» azaldu da gaurko kontzertuarekin. Bigarren aldiz bisitatuko dute Tolosaldeko Gaztetxea eta gogo-

kin daude eskualdeko entzuleei euren kantu berriak aurkezteko. «Soinu-mahaia guk eramango dugu, kalitatezko emanaldia egin nahi dugulako». Halaber, atera berri duten diskoaren salmentekin «pozik» azaldu da taldeko partaidea, «oraindik ere balorazioak egiteko goiz den arren». Kautaren emanaldiarekin batera Une taldeak ere kontzertua eskainiko du Bonberenean. HITZA

berria *Hutsa* aurkezteko asmoz eta Naiz Roxa taldeak Pasaiaik dator bere azken diskoa *E.P. Laburrean* aurkezteko asmoz.
Tolosaldea. AHT Gelditu! elkarlanak deitutako kontzentrazioak gaur: Tolosan, 19:30ean Triangulo plazan; Anoetan, ordu berean, plazan; 20:00etan, Zuzurkilen Joxe Arregi plazan, Asteasuko eta Adunako plazetan eta Villabonan Hirualdetan.

ERAKUSKETAK

Alegia. Azaro Kulturala

antolatuko dute hil honetan Kultur Etxean, hau da, ekitaldiz beteriko egitarau kultural bat. Eta honen baitan, hilaren 13ra bitarte argazki erakusketak izango dira. **Alegia.** Maria Rosario Ormazabal margolariaren koadroen erakusketak azaroaren 5era arte ikusgai, Jubilatuen tabernan.
Ibarra. Iñaki Vergararen *Artzainaren Bizitza* txuri beltzeko 35 argazkien

erakusketak ikusgai, Kultur Etxean.
Tolosa. *Espereintziak*, XX. mendeko memoriaren berreskuratze proiektuko elkarrizketen bideoak ikusgai, Aranburu jauregian eta Gipuzkoako Artxibo orokorrean, hilaren amaierara arte.
Tolosa. *Destambul kolorek, soinuk, zaporek* jardunaldien baitan, *Topaketa* izeneko erakusketak Leidor aretoan azaroaren 12a bitarte, eta Fronton jatebaxean azaroaren 17ra arte.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Leitza. Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.
Tolosa. Aziproz, M.L. Amaroz auzoa, 9. 943 67 51 18.

IRRATIA

Txolarre irratria (107.5, 101.2 FM)

11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZAREN errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
18:00-20:00. *Tolosaldeko ahotsa.*
20:00-21:00. *Asteko onena.*
21:00-22:00. *Igo bolumena.*

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

AGURRAK ▶

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza Leitza Udaletxeko bulegoa

hitza
agurren tartea

Urtebetetzeak,
urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...